

2018ko urtarrilaren 8tik 13ra bitarteko aldizkarietan (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBAO) argitaratutako interes orokorreko xedapenak

I.- SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK:

2018/01/08ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

- 2006-2014 aldirako Gipuzkoako Errepide Bidezko Bidaiarien Garraioaren Hitzarmen Kolektiboaren aurreraeragina luzatzeko akordioa. 8980. xedapena - 3 or.

2018/01/09ko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- 2017ko abenduaren 21eko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den **gutziz edo zati batean funts publikoen bidez mantendutako irakaskuntza pribatuko** enpresen VI. Hitzarmen Kolektibotik sortutako **Akordioa**. 308. xedapena - 3 or.
- 2017ko abenduaren 21eko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den **gutziz edo zati batean funts publikoen bidez mantendutako irakaskuntza pribatuko** enpresen VI. Hitzarmen Kolektibotik sortutako **Akordioa**. 309. xedapena - 5 or.
- 2017ko abenduaren 21eko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den **eraikuntzaren sektoreko** VI. Hitzarmen Kolektibo **Orokorreko 2018rako soldata-igoerari eta gutxieneko urteko ordainsari gordinari** buruzko akordioaren Akta. 312. xedapena - 3 or.

2018/01/10eko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- 2017ko abenduaren 21eko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den **Estatuko Portuen eta Portuko Agintaritzen** II. Hitzarmen Kolektiboa luzatzeko akordioaren akta. 361. xedapena - 3 or.
- 2017ko abenduaren 21eko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den **hotz industrialaren industrien** Hitzarmen Kolektiboaren 2017rako soldaten berrikuspena. 362. xedapena - 3 or.

II.-XEDAPEN ARAUTZAILEAK:

BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala): [Estatuko Aldizkari Ofizialaren linka](#)

2018/01/09

- **SUSTAPEN MINISTERIOA- Trenbide Zirkulazioari buruzko Erregelamendua.-** Abenduaren 1eko 1011/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen den uztailaren 17ko 664/2015 Errege Dekretua, Trenbide Zirkulazioari buruzko Erregelamendua onartzen duena. 285. xedapena - 50 or.

2018/01/12

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA.- Enplegu-politika.-** 2017ko abenduaren 18ko Enpleguaren Estatu Idazkaritzaren Ebazpenaren **akatsak zuzentzea**, zeinaren bitartez argitaratzen den 2017ko abenduaren 15eko Ministroen Kontseiluaren Akordioa. Horren bitartez, 2017rako Enplegu Politikaren Urteko Plana onartzen da, Enpleguaren Legearen Testu Bateginaren 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, urriaren 23ko Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa. **403. xedapena - 1 or.**

2018/01/13

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA.- Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga eta zenbait garraibideren gaineko zerga.-** Abenduaren 5eko HFP/1258/2017 Aginduaren **akatsak zuzentzea**. Agindu horren bitartez, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraibideren gaineko zergaren kudeaketan aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak onartzen dira. **429. xedapena - 3 or.**

EHAA (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria): Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren [linka](#)

ALHAO (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala): Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren [linka](#)

2018/01/08

- **DIPUTATUEN KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.-** Abenduaren 29ko 62/2017 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, zeinaren bitartez onartzen den pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako lan-etekinei aplikatzeko atxikipenen ehunekoak aldatzea. **1. xedapena - 29 or**

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala): Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren [linka](#)

GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala): Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren [linka](#)

EBAO (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren [linka](#)

Kepa Bilbao Zubiatur

Telefonoa: 94 425 25 15 Faxa:94 423.22.95

e-maila: informacion.juridica@mutualia.es



MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO 26 - 48009 BILBAO